
6. BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Nola erakarriko dituzue bezero berriak, eta nola mantendu eta hazi araziko dituzue bezero horiek?

Gure enpresan berezoekin harreman zuzena dugu, bezeroek eskatzen dutena lortzen saiatzen gara ahalik eta hobekien beraien nahiak betetzeko eta enpresak lortzen duenarekin pozik egoteko. Bezeroek edoizein momentuan arazoren bat izango balute haiekin harremanetan jartzen gara web-aplikazioak edo erantzungile automatikoak erabiliz eta ahalik eta hobekien arazoa konpontzen saiatzen gara. Arazoaren arabera harreman mota ezberdinak hartzen dira.

Esan bezala bezeroek eskatzen dutena lortzen saiatzen gara haien itxaropenak betetzeko. Adibidez taberna bat bilatzerako garaian bilatzailean jarritako baldintzak betetzen dituen tabernak eskaintzen saiatzen gara beti, horrela, bezeroek webgunean jarritako balorazio eta kritikak onak izango dira eta honek bezero gehiago erakarriko ditu ikustean aplikazioak esandako kondizioak benetan betetzen dituela eta ez dela itxura emateko bakarrik.

Aplikazioari buruz esan dezakegun beste gauzetako bat, bezeroei arreta eta tratu ona emateaz gain, sariak ere lortzen dituztela. Hau da, lehen ahipatu dugun bezala kontsumitzen den taberna bakoitzeko puntu batzuk lortzen dira, puntu kopuru bat lortzean web-ean jakinarazten da eta puntu horiek lortzen dituzten lehen bezeroek sari bat izaten dute. Sari hau noski gure aplikazioan azaltzen diren tabernen artean bat aukeratzea da, non dohain kontsumitzeko aukera izango duten. Horrela web-ean bezeroen eskerrak eta kritika onak besterik ez dira azaltzen eta hori ona da bai empresarentzat eta bai berezoentzat.